

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Gobernuak 131.000 euroekin finantzatu ditu eskolako kirol-programak datorren ikasturtean

Bestalde, 120.000 euroko laguntza gehigarri emango du toki-erakundeek egiten dituzten jarduera fisiko eta kirol-jardueretarako

Lunes, 27 de julio de 2015

Nafarroako Gobernuak 131.000 euroekin finantzatu ditu ikastetxe publiko nahiz pribatuek 2015-2016 ikasturtean garatutako kirol-programa. Diru-laguntza horren helburua ikasleengan ondorengo adinetan kirol-jarduera jarraitua dakarren ohitura fisikoa sortzea da.



Diruz lagundutako eskola-adineko kirol-programek hezkuntza eta aisialdiko osagaia nagusituko den jarduera fisikoak egitea sustatu beharko dute. Gizarteratzeko, osasuneko, ongizateko eta dibertsioeko tresna izango dira ere ikasleen prestakuntzari eta hezkuntza integralari laguntzeko.

Diru-laguntzen deialdi honen oinarrien arabera, Nafarroako Aldizkari Ofizialean [berriki argitaratu](#)takoak, ikastetxeek laguntza horiek abuztuaren 30a baino lehen eskatu beharko dituzte. Horretarako, beharrezko dokumentazioa aurkeztu behar dute Nafarroako Kirol eta Gazteria Institutuaren egoitzan (Emilio Arrieta kalea, 25, Iruña), bai eta Foru Gobernuak [gainerako erregistro](#)etan edo [30/1992 Lege](#)an ezarritako tokietan ere.

Programa egin eta koordinatzea, bertako jarduerak eskola-ordutegitik kanpo egin beharko direnak, ikastetxeko Gorputz Hezkuntzako Departamentuari egokituko zaio. Jarduerak egiteko kiroletako abiarazlea edo begirale modura gutxieneko kalifikazioa duten langileak izan ahalko dira. Gainera, ikastetxeek kanpoko eragileen lankidetzara eskatu ahalko dute, esaterako: federazioak edo kirol-klubak, toki-erakundeak edo kirol-kudeaketako enpresak.

Nafarroako Gobernuak 4.000 euro arteko diru-laguntza emango dio kirol-programa bakoitzari, dagoen aurrekontuaren arabera. Zehazki, kirol-material suntsikorra erosteari, langileen kontratazio edo prestakuntzari eta joan-etorriari lotutako gastuak finantzatu dira.

Toki-erakundeetarako diru-laguntzak

Bestalde, Nafarroako Aldizkari Ofizialak 120.000 euroko beste

laguntza-deialdi bat [argitaratu du ere](#) azken egunotan, toki erakundeek aurtengo urriak 1 eta 2016ko irailak 30 artean antolatutako jarduera fisikoak eta kirolekoei diruz laguntzeko.

Zehazki, Nafarroako Gobernuak etengabe eta modu egonkorrean egindako 60 urtetik gorakoentzako ekintzak finantzatuko ditu, eta oro har biztanle guztientzat diren ekimenak, kirol-teknikari bat duten mankomunitateek era ohikoan sustatzen dituztenak.

Laguntza horiek eskatzeko epea abuztuaren 30ean amaituko da. Horretarako, toki-erakundeek eskaera bat aurkeztu behar dute beharrezko dokumentazioarekin Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuaren egoitzan, Nafarroako Gobernuko gainerako erregistroetan edo 30/1992 Legean ezarritako tokietan.

Jarduera horiei zuzenean lotutako gastuak diruz lagunduko dira, esaterako: langile teknikoek eta begiraleen gizarte-segurantzako soldadak eta gastuak, laguntza-kontratuak kirol-kudeaketako enprekin, aseguru-polizak, inbentarioan sartu ezin daitekeen kirol-materiala erostea edo garaikurrak eskuratzea.